

C. ESKOLA ESPARRUARENTZAT

Drogen kontsumoa prebenitserakoan gehien landu den esparrua eskolakoa izan da eta hori ekimen, programa eta material anitzen bidez gauzatu da.

Kasu honetan, talde zaurgarrientzako prebentzio jarduerak indartzeko beharra planteatu da, ikasle guztientzat direnak alde batera utzi gabe. Ildo horretan, honako gomendio haue-
tan adieraz daitezkeen hobekuntza batzuen beharra hizpide izan du txostenak:

- 12. Babesteko faktoreak indartzeko baterako estrategiarentzat erakunde arteko konpromisoa lortzea (Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Ekintzaren bidez); konpromiso horrek honako jarduera hauek susta ditzala:**
 - Zentroi drogen kontsumoarekin eta lotutako beste jokabide batzuekin zerikusia duten arrisku faktoreak gainditzeko erabilgarritzat jotzen diren irizpideak, orientazio eta bitarteko pedagogikoak ematea.
 - Irakasleen prestakuntza eta motibazioa sustatzea, prebentzio lanean konpromiso handiagoa eta eraginkorragoa lortze aldera.
 - Zentroi esparru batzuetako profesionalen babes eta aholku gehiago ematea, drogen kontsumoa eta lotutako beste jokabide batzuk prebenitzeko proiektuak gara daitezen.
- 13. Bereziki ahulak edo zaurgarriak diren biztanle sektoreak biltzen diren edo eskola porrot edo eskola uzte tasa gehien dagoen zentroi arreta berezia ematea.**
- 14. Lanbide heziketarako ikastetxeetan burutzen diren edo antzeko ezaugarriak dituen beste zentro batzuetan burutu daitezkeen eskolako prebentzio selektiboko programen esperientziak (egungo Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak –HLPP–) baloratu eta bultzatzea.**

D. FAMILIA ESPARRUARENTZAT

Familia esparruari dagokionez, txostenean kontraesankorra dirudien egoera antzeman da. Alde batetik, argi dago funtsezko testuingurua dela, alegia, babes eman, prestatu, aholkuak eman, orientatu... behar den esparrua dela, drogen kontsumoarekin zerikusia duten faktoreak gaindi daitezkeen edo, hala badagokio, horri lotuta egon daitezkeen jokabide edo jarrera gatazkatsuak hobeto kudea daitezkeen. Askotan, familiak, edozein motatakoa dela ere, babesik gabe dagoela edo beste eragile batzuen eskuetan uzten duen egiteko horri aurre egiteko baliabideak edo gaitasunak ez dituela sentitzen du. Ordea, askotan, ikastetxeetan edo elkarteetan familientzako jarduerak ematen direnean, parte hartzea oso txikia da edo, agian, gutxien behar duten familiaena.